



Save the Children

HEMEN EZ DAGO BIZITZERIK


**Familiek Euskadin etxebizitza duin bat eskuratzeko
dituzten zailtasunen azterketa**

- » Etxebizitza da gizarteko desoreka larrienetako batzuen sorburua, eta eragin handiagoa du haurrengan. Euskadin, 2008az geroztik gehien handitu den familia-gastuaren atala da, eta hazkuntzaren guztizko kostuaren gainean pisurik handiena duena; kostu hori 769 eurokoa da, estatuko gainerako erkidegoetan haur bat hazteak duen kostuaren gainetik.
- » Etxebizitza-gastuaren gainkarga-mailak altuak dira Euskadin, eta hazkuntzaren kostu handiari gehitzen zaizkio. EAEko hiru hiriburuuetako datuak aztertuz gero, alokairuaren prezioa barrutiko batez besteko soldataren % 20tik gorakoa da barruti guztietan, baina ez dugu datu zehatzik etxe horietan hurrek duten presentziari buruz, eta ez dakigu etxebizitzak alokatuta dauden edo hipoteka ordaintzen ari diren.
- » Euskadiko etxebizitza babestuen eskaintza publikoa txikia da Europako batez bestekoarekin eta inguruko herrialdeekin alderatuta, hala nola Austria, Herbehereak, Danimarka edo Suediarekin. Gainera, ez da nahikoa eskaera gero eta handiagoari erantzuteko.
- » Euskadin Etxebizitza Legeak aurrera egin duela onartuta ere, oraindik ere erronka handiak daude etxebizitza duina eta arrazoizko prezioan eskuratzeko, bai eta etxegabetzei aurrea hartzeko ere, batez ere haurrak dauden etxeetan.
- » Diagnostiko honek agerian uzten du etxebizitzaren esparruko bazterketaren arloan Euskadin dugun benetako egoerari buruzko datuen bereiketa falta, politika publiko koherenteak garatzeko eta honelako arazoei aurre egin ahal izateko beharrezkoa dena: gainkarga, pilaketa, etxebizitza txikiegiak edo txabolismoa.

1. Etxebizitza baldintza desegokietan

- » Euskadiko etxebizitzaren % 1,2k eraikuntza-akats larriak ditu, eta horrek esan nahi du familia batzuk modu egokian bizitzeko gutxieneko baldintzarik ez duten etxebizitzetan bizi direla. Horrek eragina du haurren osasun fisikoan eta mentalean, eta antsietatea, depresioa eta lo egiteko eta ikasteko zailtasunak sortzen ditu.


Eraikuntza-akats larriak dituzten etxebizitzak
Euskal Autonomia Erkidegoko etxe guztien gaineko ehunekoa, 2021



Iturria: geuk egina, FOESSAren datuetan oinarrituta

- » **Etxebizitza osasungaitza. Euskadiko etxebizitzaren % 4k osasungarritasun-ara-
zoak ditu, eta % 1,2 ingurune degradatueta dago. Aireztapenik edo edateko
urik ez izateak edo zerbitzu gutxiagoko edo kutsatutako eremuetan bizitzeak
haurren hazkundera, higielean eta garapenean eragiten du.**

Osasungarritasun-arazoak dituzten etxebizitzak
Euskal Autonomia Erkidegoko etxe guztien gaineko ehunekoa, 2021




Iturria: geuk egina, FOESSAren datuetan oinarrituta

Pilaketa. Euskadin, haurrak eta nerabeak dituzten familien % 5,8k pilaketa-egoera bizi du, Espainiako batez bestekoaren (% 4,8) gaineratik. Datu hori kide bakoitzak bizitzeko 15 metro koadro baino gutxiago dituen etxebizitzetarako buruzkoa da; pilaketa horrek ondorioak ditu haurren eta nerabeen ongizatean eta bizi-kalitatean, eta haien pribatutasunean, espazio pertsonalean, eskola-errendimenduan eta osasun mentalean eragiten du.

Pilaketa-egoera jasaten duten etxebizitzak

Haurrak eta nerabeak bizi diren eta pertsona bakoitzeko 15m2 baino gutxiago dituzten etxebizitzaren ehunekoa, 2020



Iturria: geuk egina, FOESSAren Beharrei eta Gizarteratzeari buruzko Inkestan oinarrituta


- » **Etxebizitza desegokia izatearen pertzepzioa. Euskadiko familien % 7,7k uste du bere etxebizitza berritu behar duela, eta ehuneko horretatik, % 63,2k uste du beharra handia dela.** Familia horien erdiak pobrezia-arriskuan daude. Faktore hori mugatzailea da haurrak eta nerabeak dituzten familietan pobrezia energetikoaren aurka borrokatzeko (ENDV, 2019).

- » **Etxean haurrak edo nerabeak dituzten EAEko familien % 6k ezin du tenperatura egokia izan etxean**, un dato por detrás de países como Irlanda, Bélgica, Dinamarca, Austria o Países Bajos. Esto puede provocar enfermedades respiratorias y cardiovasculares, así como a síntomas de ansiedad, depresión y estrés también en niños y niñas (ECV, 2021).
- » **Etxebizitza txikiegia, txabolismoa eta asentamenduak.** Familien % 0,1 (haurrak ardurapean dituztenak zein ez dituztenak) etxebizitza txikiegietan bizi da. Euskadi da egoera hori gehien pairatzen duen erkidegoetako bat, familien % 0,3k baitu egoera hori. (EINSFOESSA, 2021).

2. Segurua ez den etxebizitza

- » **Kaleratzeak.** Arabak du intzidentzia handiena, 1.000 etxebizitzako 1,4ko kaleratzeekin; ondoren, Bizkaia (1,1) eta Gipuzkoa (0,4) daude.


Alokairuagatiko eta hipotekagatiko etxegabetzeen lurralde-intzidentzia Espainian (10. grafikoa, datu gordinak falta dira)
Etxegabetzeen kopurua, ordaindu gabeko modalitateen arabera, lurralde bakoitzeko 1.000 etxebizitzako



Iturria: geuk egina, BJKNn oinarrituta, 2021.
Oharra: ez dago Ceuta eta Melillako daturik.

✓ Etxebizitzaren kostua

Etxebizitzaren kostuaren gainkarga Autonomia Erkidego bakoitzean
Gainkarga jasaten duten eta haurrak eta nerabeak dituzten familien ehunekoa, 2020



Iturria: geuk egina, Bizi Baldintzei buruzko Inkestan oinarrituta, 2021

- » Euskadin artatzen ditugun 141 familiari egindako inkestetan oinarrituta, gutxienez familien % 51,8k dio zailtasunak dituela hipoteka edo alokairua ordaintzeko, eta % 68,1ek zailtasunak izan dituela argindarraren, berokuntzaren edo uraren oinarritzko hornidura-gastuei aurre egiteko (Save the Children, 2022).
- » EAEko hiru hiriburuetako barruti guztietan, batez besteko alokairuaren prezioa auzoko batez besteko soldataren % 20 baino handiagoa da. Bilbon, Begoña auzoak du karga handiena (% 27,6), eta Abandok txikiena ((% 20,1). Alokairuaren batez bestekoa, hileko 529,3 €-tik (Iturrigorri-Peñascalen) hileko 1.015,2 €-ra (Abandon edo Indautxun) artekoa da.
- » Donostian, Egiak du gainkargarik handiena, % 26,3koa, eta Zubietak, Igeldok edo Añorgak txikiena, % 21,8. Donostiako alokairuen batez besteko prezioa hiru hiriburuetako altuena da: 938,8 € hilean batez beste, eta alde dago Mar-


tutenetik (718,1 € hilean) Aiete-Lugaritzera (1.086,5 € hilean). (Sistema Estatal Índices Alquiler de vivienda eta Atlas de distribución de renta de los hogares 2020 eta EMAL, 2022).

- » **Gasteiz da gainkarga txikiena duena.** Kasu honetan, hego-mendebaldeko eremuak % 20,3-ko gainkarga du, eta Salburuak % 24,4koa. Hileko batez besteko alokairu-prezioa 667,1 €-koa da: Abetxukon hilean 585,6 €-koa, eta San Martinen hilean 784,1 €-koa. (Sistema Estatal Índices Alquiler de vivienda eta Atlas de distribución de renta de los hogares 2020 eta EMAL, 2022).
- » **Bizkaian, alokairuaren batez besteko errenta 712,7 eurokoa da hilean; Gipuzkoan, 739,5 eurokoa da hilean, hiru lurraldeetako altuena; eta Araban, 637,6 eurokoa da hilean, hiruretatik baxuena.** Sevillan, 548 eurokoa da batez besteko prezioa; Malagan, 554 eurokoa; Zaragozan, 454 eurokoa; eta Valentzian, 458 eurokoa. (EMAL, 2022).
- » Euskadin etxebizitza bat erosteko orduan, eraikitako metro koadroko batez besteko prezioak goranzko joera izan du Bilbon eta Donostian. Etxebizitza librearen m² bakoitzeko batez besteko prezioa 4.970,1 eurokoa da Donostian (3.208 eurokoa Gipuzkoan), 3.001,4 eurokoa Bilbon (2.746,2 eurokoa Bizkaian) eta 2.193,2 eurokoa Gasteizen (1.964,1 eurokoa Araban). EAE osoan, batez besteko prezioa 2.787,1 eurokoa da. (ECVI, 2022).

✓ **Babes sozialeko etxebizitza**

- » **Euskadik etxebizitza babestuen defizita du, etxebizitza guztien % 4 baino ez baitira.** Ehuneko txikia da hori, % 20tik gorako etxebizitza babestuen parkea duten inguruko herrialdeekin alderatuta (Herbehereak, Austria, Danimarka edo Suedia). Gainera, **eskaintza publikoak oraindik ez dio eskariaren bolumenari erantzuten.**


Euskadiko lurralde bakoitzeko tokiko parke publikoa
Tokiko stock publikoa probintziako eta alokatzeko stocka



Iturria: geuk egina, Etxebizitzaren eta Lurzoruaren Behatokian oinarrituta, 2020

» **Gaur egun, inbertsioa 125 milioi eurokoa da,** eta biztanleko etxebizitzarako euro gehien bideratzen duen hirugarren autonomia-erkidegoa da, ia 71 euro, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Madrilen atzetik.

Milioi euro iraunkor (2019ko oinarria)



Iturria: geuk egina, Etxebizitzaren eta Lurzoruaren Behatokian oinarrituta, 2020

- » **1 gomendia. Etxebizitza babestuen parkea handitzea, formula berrien eta hornitzaileen arteko aliantza eraginkorren bidez, eta udalei bitartekaritzarako baliabideak ematea**

2022-2036 Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialarekin bat etorrita, etxebizitza eskuragarria izateko prozesua bizkortu egin behar da, etxebizitza babestu berrien bidez itxaron-zerrendak murriztuz, familia zaurgarriei lehentasuna emanaz eta egoera irregularrean dauden migratzaileei etxebizitza eskuratzeko aukera emanaz. Horretarako, beharrezkoa da sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantza eraginkorrak sustatzea, formula misto berriak gauzatzeko, lankidetzak publiko eta pribatuaren bidez, toki-administrazioak bitartekaritzan indartuz eta hutsik dauden etxebizitzak mugiaraziz, etxejabeei beren etxea etxebizitza babestuen merkatuan jartzeko pizgarriak emanaz.

- » **2 gomendia. Haurrak dituzten etxeetan etxegabetzeen aurkako babes indartzea**

Haur Bermerako Estatuko Planean, etorkizuneko Haur Bermearen Euskal Estrategian eta Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean oinarrituta, beharrezkoa da gomendio hau udal, foru eta autonomia erkidegoetako agenda estrategikoan txertatzea, haurrak dituzten etxeetan etxegabetzeen prebentziorako esperientziak indartuz, zabalduz eta beste maila batzuetara eramanez. Haurrek prozedura horien aurrean ahalik eta babes handiena izango dutela bermatu behar da, eta aldi baterako ostatu bat eskaini behar da berehala, baldin eta ez badute beste bizi-eremu egokirik eskuratzeko aukera.

- » **3 gomendia. Etxebizitzarako laguntzak eskuratzeko erraztasunak ematea, zenbatekoak merkatuaren prezioari eta hazkuntzaren kostuari egokitu eta guraso bakarreko familiei lehentasuna emanaz.**

Prestazioek egoera zaurgarrian dauden familia askok jasaten duten gaitasun finantzarioa arintzen lagun dezakete. Laguntzen zenbatekoak etxebizitzaren merkatuko prezioari eta Euskadiko hazkuntzaren kostuari egokitu behar zaizkie. Gainera, erraztasunak eman behar dira horiek eskuratzeko, izapideak egiteko eta hartzaileei jakinarazteko.

- » **4 gomendia. Haurrek etxebizitzaren esparruan Euskadin jasaten duten bazterkeria buruzko ebidentzia eta diagnostikoa zehaztea eta zabaltzea**

Familia-motaren, errenta-mailaren edo edukitze-motaren arabera familien gaitasun buruzko datu bereizirik ez egoteak hutsune bat uzten du diagnostikoan. Ebidentziak eta mikrodatuak behar dira, politika publikoak modu zehatzean doitzeko eta talde zaurgarrietara zuzentzeko nahiz ekitatez jokatzeko.

Gainera, diagnostikoetan aurrera egitea proposatzen dugu, etxebizitza txikiegi-aren arazoak eragindako taldeen dimentsioa zehazteko eta identifikatzeko eta, hala, etxebizitza duin bat eta arazo horren aurrean prebentzio handiagoa lortzera bideratutako Euskadirako plan bat bermatzeko. Hazkuntzak etxebizitza du gune nagusi, eta haurren garapenerako funtsezko baldintza egituratzailea da.

» **5 gomendioa. Etxebizitzen birgaitzea bultzatzea, pobrezia energetikoari aurre egiteko**

Birgaitze energetikoak fakturan % 60 aurrezten lagundu dezake, eta, beraz, pobrezia mota horri aurre egiteko beharrezko neurria da. Euskadiko Etxebizitzaren 2021-2023 Gida Planarekin bat etorritz, eraikinak bizitza duin bat errazteko birgaitzeak bultzada bat behar du inpaktu sozial handiagoa lortzeko, eta pobrezia energetikoko egoeran dauden eta haurrak dituzten etxebizitzetara lehen-tasuna eman behar zaie. Horrekin batera, laguntza eta neurri sendoak jakinarazi eta zabaldu behar dira, birgaitze energetikoa beste gentrifikazio-tresna bat bihur ez dadin.

» **6 gomendioa. Etxebizitza babestuen kopurua handitzeko programa berritzaileak egokitzea eta horietan aurrera egitea**

Etxebizitza-politikei esker, Euskadi lurralde egokia da etxebizitza babestuen eskaintza areagotzeko programa berritzaileagoen irismena handitzeko. Alde horretatik, etxebizitza duina eskuratzeko aukera sustatzeko, herritarren ekimenak bultzatu behar dira, hala nola espazio komunak dituzten etxebizitza-komunitate elkartuak (Cohousing). Ekimen horiek ondorioak dituzte zenbait taldek lana eta familia uztartzeko orduan, hala nola guraso bakarreko familiek, EAEko familien % 10 diren aldetik.



“Hemen ez dago bizitzerik” (Save the Children, 2023) txostenaren Euskadiko eranskinetik egindako laburpen exekutiboa.